



**DIO
CE
SIS+** Diócesis
de Vitoria
Gasteizko
Elizbarrutia

AURRETIKO AGINDU ETA AURRETIKO BORONDATEAREN ADIERAZPENA

Nire senitartekoei, osasun-langileei, nire parrokoari edota kapilau katolikoari:

Emango lizkidaketen osasun-tratamenduez neure borondatea adierazteko gauza ez izatea etorriko balitzait, Adierazpen hau neure buruaren jabe naizela, erantzukizunez eta askatasunez emandako agindutzat hartzea eskatzen dut, eta errespetatzea nik emandako aurretiko agindutzat, heriotzaldirako agindutzat, aurretiko borondateatzat nahiz legeak onartutako horien antzeko dokumentutzat.

Mundu honetako bizia Jainkoaren dohaina eta bedeinkazioa dela sinesten dut; baina ez da baliorik gorenena. Badakit heriotza ekidin ezinena dela eta lur honetako bizitzaldia eteten duela. Baina, fedearen argitan, sinesten dut bukaera gabeko bizirako bidean sartuko nauela, Jainkoa baitan bizitzeko.

Horregatik, nik, izenpetzen dudanez honek (izena eta deiturak), eta (gizaseme/emakume) naizek honek,-n (herria) an (data) jaioa, NAN edo pasaporte zk, osasun-txartelaren edota identifikazio personalaren koderen zk, nazionalitatea helbidea, (herria), telefono-zenbakia dudanez honek

ADITZERA EMATEN DUT

Erabakiak askatasunez hartzeko behar den hainbateko gaitasun legezkoa dudala, erabaki hau hartzean libreki ari naizela eta legez ez nautela ezgaitu erabaki hau hartzeko.

Hau da nire eskabidea: eritasun larri eta sendaezinen bat nozituko banu edota neke larri, kroniko nahiz ezindua utzi nauen eritasunen bat edota horrelako egoera larriren bat sufrituko banu, eman diezadatela oinarrizko zainketa eta mina eta sufrimendua arintzeko tratamendu egokia; ez diezadatela eman heriotza eragiteko inolako laguntzarik, hau da, eutanasia edo “mediku-laguntzaz eragindako suizidiorik”, eta ez diezadatela heriotzarako nire prozesua luzatu gehiegikeriaz eta zentzugabekeriak.

Neure heriotza kristauari eta gizakiari dagokion eran onartzeko laguntza eskatzen dut, eta horretarako, apaiz katolikoren bat etortzea, baita une horretako sakramentuak ematea ere.

Neure bizitzaldiaren bukaerarako prestatua egon nahi dut, bakean, neure ahaideak lagun ditudala eta kristau fedearen kemenez.

Ongi pentsatu ondoren sinatzen dut Adierazpen hau. Eta zainduko nauzuenoi hau eskatzen dizuet: errespetatzea nire borondatea.

Nik neronek ezin egingo dudanerako, honako pertsona hau izendatzen dut:
..... NAN zk:

helbidea telefonoa Eta legezko ordezkari honek ezin izango balu, beste hau izendatzen dut

..... NAN zk. helbidea
..... telefonoa

Eskumena ematen diet pertsona horiei, behar izanez gero, dagokion erabakia har dezaten nire izenean.

Haurdun banengo, nire umearen bizia errespetatzeko eskatzen dut.

Ongi dakit erantzukizun handikoa eta zaila den zerbait eskatzen dizuedala. Erantzukizun hori zuekin erdibanatzeko eta zuek errudun sentitzea eta zalantzaren bat izatea ekiditeko, idatzi dut eta sinatzen adierazpen hau.

Izenpea:

Data:

NAN:

Testigua	
Helbidea, tfnoa	
Sinadura	NAN

Testigoua	
Helbidea, tfnoa	
Sinadura	NAN

Testigoua	
Helbidea, tfnoa	
Sinadura	NAN

Adierazpen-egilearen borondatea betearazteko izendatua den ordezkariak bere egitekoa onartzea.

Testigua	
Helbidea, tfnoa	
Sinadura	NAN

Adierazpen-egilearen borondatea betearazteko izendatua den ordezkariaren ordezkoak bere egitekoa onartzea.

Testigua	
Helbidea, tfnoa	
Sinadura	NAN